



Beasaingo Udala

Beasainen, bi mila eta hemeretziko urtarrilaren hogeita lauan

BILDURIK

Alde batetik, BEASAINGO UDALA, Aitor Aldasoro Iturbe jaunak ordezkatuta. Beasaingo Udalaren Alkate-lehendakaria, Toki araubidearen oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21. artikulua.

Bestetik, Gala Nieto Ferreras and. (NA 72461973), Beasaingo Ballet taldearen arduraduna.

AURREKINAK

I. Gala Nieto Ferrerasesk interesgarriak diren kultur eta hezkuntza jarduerak egiten ditu.

II. Gala Nieto Ferrerasesk kultur sustapenean biziki laguntzen du, urtean zehar hainbat jarduera programatuz.

III. Gala Nieto Ferrerasesk dantza-hezkuntzako jarduera aipagarriak eta, aldi berean, espresio artistiko horri buruzko praktikan oinarrituriko lanak egiten ditu.

IV. Hitzarmen honen helburua eta Udalaren arteko harremana erregulatzea da, 2019. urtean zehar hainbat jarduera desberdin egiteko.

BALDINTZAK

LEHENA.- Gala Nieto Ferrerasesk urritik ekaina bitartean emango duen balleteko ikastaro bat antolatu eta finantzatzeko konpromisoa hartzen du. Era berean, Beasaingo Igartzako barandila egiteko konpromisoa hartzen du, horretarako megafonia eta aurkezlea jarriko ditu udalak. Urtero bezala Donostiako Kontxako barandilan apirilean izaten den ekitaldian parte hartuko du. Ikastaroetarako Urbietako Arte Plastikoetako gela bat erabiliko du beste taldeekin konpartituz. Gala Nieto Ferrerasesk ikasturtean aritu diren ikasleekin ikasturte amaierako funtzio bat antolatu eta finantzatzeko konpromisoa hartzen du. Emanaldia larunbat eguerdi batean izango da Usurbe Antzokian.

BIGARRENA.- Beasaingo Udalak jarduera horien antolaketarako **3.621,71 €** emanez lagunduko dio. Ordainketa zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan eguneratuta dagoela kreditatu ondoren apirilean egingo da ordainketa.

Udalak ematen duen diru-laguntza bateragarria izango da helburu berdinetarako elkarteak jasotzen dituen beste laguntzekin. Jasoz gero, ezagutu bezain pronto, Udalari jakinaraziko dio eta horrek hitzarmena berrikustea ekarriko du.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gala Nieto Ferrerasesk egiaztatu beharko du ordaindu beharreko zergak, gizarte-segurantzakoak barne, egunean dituela.

HIRUGARRENA.- Gala Nieto Ferrersek bere partaidetza beharrezkoa den beste edozein jardueratan lagunduko du.

LAUGARRENA.- Gala Nieto Ferrerasi dagokio hitzarmendutako jardueri beharrezkoa den publizitatea egitea eta Beasaingo Udalaren laguntza (eta logotipoa) aipatzea beraiek antolatutako jardueri buruz egiten dituzten prentsarako ohar guztietan. Era berean, leku duin eta ikusgarrian aipatu beharko dira Beasaingo Udalaren laguntza, kartel, aldizkari, esku-egitarau, e. a., motatako zabalkunde-bitartekoak erabiltzen direnean.

BOSGARRENA.- Hizkuntz Politikako irizpideak jarraituz, idatziz sortzen diren material guztietan (kartel, diptiko, eskuliburu, apunte etab.) euskarari lehentasuna emango zaio eta materialen zirriborroak inprimategira eraman aurretik Udaletxera ekarriko dira testuen hizkuntz egokitasuna eta proportzioen zuzentasuna ziurtatzeko. Aurkezpenetan eta antzekoetan ere euskarak lehentasuna izango du.

SEIGARRENA.- Gala Nieto Ferreras, publizitate bidez finantzatuko dituen diptiko edo beste edozein inprimakiren kasuan, dendariak euskarazko publizitatea eros dezaten ahaleginduko da eta, bestela, publizitatea ele bietara jasotzeko ahalegina egiteko konpromisoa hartzen du.

ZAZPIGARRENA.- Udalak hizkuntzari dagozkion arlo guztietarako bere laguntza eta lankidetzak eskainiko ditu.

ZORTZIGARRENA.- Beasaingo Udalak beharrezkoak diren Udal zerbitzuak eskaintzen jarraituko du, esandako jarduerak ongi burutuko direla ziurtatzeko, eta Kultura Batzordeak beren antolaketa gainbegiratu ahal izango du.

BEDERATZIGARRENA.- Beasaingo Udalak Gala Nieto Ferrersek aurkeztutako kontuan hitzarmendutako zenbatekoa sartuko du jarduera burutu baino lehen, eta Gala Nieto Ferrersek urtea amaitu baino lehen udalaren esku utzi beharko du ondorengo dokumentazioa:

- a) Jardueren azalpen memoria, bertan ekitaldi guztietan egindako hizkuntz erabilpenaren berri zehatza eta arrazoitua eman.
 - b) Fakturak edo eskuratutako dokumentuak, ahal bada originalak, edota fotokopiak, egindako gastuen egiaztagarri.
- Idatziz sortutako materialaren ale bana aurkeztu beharko ditu.

HAMARGARRENA.- Hitzarmen hau betetzeari dagokion guztirako, Gala Nieto Ferrersek, Alkatetzak horretarako izendatzen duen pertsona edo pertsonekin izango ditu zuzeneko harremanak.

HAMAIKAGARRENA.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna babesteko klausula.



Gala Nieto



Beasaingo Udala

Elkarteek berdintasuneko irizpideak (Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta hau aldatzen duen otsailaren 16ko 3/2012 Legea) kontuan hartuko dituzte bai elkartearen barruan bai eta sustatzen dituzten proposamenak gauzatzeko garaian ere.

HAMABIGARRENA.- Datu pertsonalak babesteko klausula.

- A. 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) ezarritakoa betez, alegia, Datu Pertsonalak Babestekoan, alde bakoitzak erasandakoen baimen informatua lortzeko ardura izango du, hain zuzen ere, hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean beharrezkoak diren beren datu pertsonalen tratamendurako. Era berean, alde bakoitzak hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean erabilitako datu pertsonalen konfidentzialtasuna bermatzeko ardura izango du.
- B. Elkarrekin Beasaingo Udalari datu pertsonalen lagapena eginez gero, uneoro, beren datu pertsonalak lagatzeko erasandakoen baimen informatua duela bermatu beharko du.
- C. Alde bakoitzak egin litzakeen indarrean dagoen datuak babesteko araudi honen ez-betetzeetatik letozkeen ardurak bere gain hartuko ditu.

HAMAHIRUGARRENA.- Aurreko edozein baldintza behar bezala ez betetzeak hitzarmen hau berrikustea ekarriko du.

HAMALAUGARRENA.- Gala Nieto Ferrersek (N.A.: 72461973) baimena ematen dio espresuki BEASAINGO UDALARI, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentutik eta Gizarte Segurantzatik eskura dezan, hitzarmen honetan aipatzen den ORDAINDU BEHARREKO ZERGA EGUNEAN IZATEAREN baldintza betetzen duela egiaztatzen duen agiriak:

☒ BAI

☐ EZ

Eta esandako guztiarekin ados egonik, bildutakoek dokumentu hau urte baterako sinatu dute bikoizturik, goiburuan aipatutako data eta lekuan.

 *Gala Nieto*

